

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

224n. zenbakia
abendua 1997



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



AKESOLO'tar Lino aitari egin jakon omenaldian

- Akesolo'tar Lino idazle ta billatzaillea
- Puxana'tar Pedro abade idazle ta billatzaillea
- Atutxa'tar Julio osagille ospetsua

MATERIALAKERIA

Materialismu edo jakintzazko materialkeri zaleak, guztizitsuak direnak, gitxi geratzen dira. Materialkeria egiz sinistu ta onartzen dabenak guztiz gitxi dira, azalkezik gizartean agertu nai leukenendik aparte. Jokabidez maten edo gai-zale agertu naikoak dira geienbat. (Sarda Salbany) Izan bere gizonak ta txakurrak, andreak eta astoak, umeak eta katuak, personak eta pistiak elburu bat daukela ezin onartu leiteken gauzea da. Abere ta personen artean aide aundia agertzen da jakituri ta erantzupenaren bidean.

Egunen baten azelako barre algarak egingo dituen munduan gaur eguneko gizonen materialkeri zaletasun barragarria dala-ta. Zenbat eta geiago ikasten dodan izadiaren zera, geiago ta geiago ederresten dot Jaungoikoaren lana. (Pasteur).

Materialkia, azalez begiratu ezker, errez, ikasten da zentzunen mugak goitzeko buru argia lar zorrotzu barik.

Gizarteko edo edestiko edo aldien joan-etorriko materialismukeria. Era ontako materialkeriak ugariagoak dira, au da, geiago onartuak izaten dira norbere gogo ta aidetako jokabideak diranean, aragikeri ta nasaikeriak ba-dauke euren artean zer esan aundi bat jendearen onerako dalakobat agertu ta gero goitik berako agintzailleak makillapean jendea euki ta eurak jauntxo bezela bizi dira.

"Zuek inpernu gorri biurtu nai dozuen lurra, guk paradisu biurtu nai dogu" ori da euren goiburua.

Marxtarrak ez dira bakarrik maten zaleak... politikari diru aundi-dunak erri jauntxo biurturik euren biotza lur-ondasunetan sarturik daukenak, materizale porrokatuak dira ta ez Marxtarrak baiño obeagoak. Izen ezbaridiñekin aldra baten barruan, egoki, sartzen dira lurreko gauza zale-tasunean.

Era ontako jende modua guztiz ugaritu da ta euren elburua ez da on egitea euren bizikeran ondo egotea baiño. Kristau egintzak egiten dituenen artean be, siniste bakoan bizitz jokabidea agertzen da. (Pio XI'ak garizumatarrei. 1935).

Jainko izunkeria baiño obeto esango genduke giza gureta dagoala gizartean. Asmo gaiztoz personeari emoten jakon onartzea laguna goratu ta gurtzera doa ta guzti orren oiñarria norberekoikeria ta norbere izatea nausi egitea da askoren asmoa. Lurra maite da zeru orde. Egiak bildurra emoten dau ta lurreko pozaren billa doa, sarritan, giza semea; azken elburuaren zoriontasuna barik bide sagar ezti gaixoa maiteago.

Utsak eta obena, beti, izan dira munduan, baiña orain-

goan baiño damu ta negarbide gitxiago nekez ezagutu da munduan esan eban jakintsuak. Gizona ederkeriak goituta dauke ta gaiztakeriaren sena ez dau ezagutu ta onartuterik nai. Lurra maite da ta al dan giñoan nauskeria dabil arrokeriz inguraturik, gerokoan barriz ez da itxaroten ainbeste gora-bera egon leitekenik.

Askoren artean erlejiua gusto eskaseko gauzatat artzen da. Izan bere, ilteak, lapurretak, gorrotoak, besteak zapal-tzeak munduak bere alajatzat artzen ditu ta erlijioak osteria gaiztakeri orrek arbuia egiten ditu ta ori da erlejiuaren puntu ederretariko bat. Izan bere, zer da ederrago zure bizia gogo onez onartzea ala gaiztakeriz bitxi eder ori ondatzea.? Erlejiuaren muiña da edozeiñen *giza* bizi-ta norbere bizi lez maite izatea.

Zer oiñarri ederragorik bizi-ta baten aurrean giza-seme bat ziurtasunez ta pozez bizi al izan dedin..? Gizonak zergaitik difioe orduan "erlejiua gusto gitxiko gauzea da". Gustoa nun dago orduan... gizonen guda ta maltzurkerizko eriotzetan ala erlejiuaren jakiturizko agindu maitetsuetan.?

Egiak bildurra emoten dau ta lurreko posaren billa doa, sarritan, giza-semea; azken elburuaren zoriona barik bideko sagar ezti maiteago.

GUGGENHEIM

(Neurria:bereizia)

(Doiñua: Esateko ez naiz lotsa)

Nueva York'tik etorria,
Bilbo erdian jarria,
titaniozko eraikuntza bat
ikaragarria.

Artearen egarria
asetzeko ekarria,
gaurtik aurrera Guggenheim dago
ordezkaturiz gure erria.

II

Polemika dago franko
ta gaiñera kalterako,
Españiako "himnoa" ere
kanta bear dalako.
Euskaldunak garalako,
ez gagoz prest ortarako
Guggenheim'eko "mobida" ori
ez da gure onerako.

LEGARRETA'tar Asier



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

EUSKAL BIDARITZA EDO POSTA

Euskaldunok, gure buruaren jabetza lortzen ari gara poliki poliki. Elburu nagusi batzuek lortu ditugu: gure legegintza, jaurlaritza, agintarien batzarra, zergak jasotzea, iru euskal probintziak bat egitea, euskararen aurkezpena eta abar. Orain urrats geiago egin bear: elburu garrantzi aundikoa bidaritzza edo posta lortu. Euskal bidaritzza lortu ezkeru bi elburu garrantzi aundikoak gure eskuetan: euskal kulturaren zabalkundea eta lantoki geiago euskaldunentzat. Oso bestelakoak dire gauzak Madrid tik ikusita edo Euskalerritik.

Gure kultura zabaltzeko, bidaritzza edo posta, ori bide egokial. Madrid'ko eskuetan "selloak" edo "iduritzxoak" Madrid'ko kultura azalduko lukete. Malla orretan garrantzi aundia eukiko luke orrelako, izen aundiko zerrenda batek: Cervantes, Lope de Vega ta Azorin, edo Antonio Machado edo idazle auen antzekoak. Izen aundiak erdal kulturarentzat eta maiz selluetan, arrazoiarekin, selluetan azalduko dituztenak benetan enda baten emaitzarik onena. Nola ez?

Guk euskaldunok, ba ditugu gure kulturatan langille egoki ta berexiak. Bidezkoa deritzait izen batzuek azalztea: Azkue, Sabino Arana, Orixe, Lizardi, Santi Onaindia, Jose Migel Barandiaran, Manuel Lekuona, Jon Oñatibia, Elbira Zipitria eta abar.

Auek euskaldunak dire ta gure nortasuna azalduko lukete. Orregatik eta ortarako bearko genuke gure bidaritzza edo posta.

Ikaragarritzko argitasuna emango lioke gure kulturari eta selloen bitartez euskal kultura obeto ezagutua izango litzake ludi zabalean.

Batek baño geiagok esango lukete, nazioen arteko askatasuna ta indarra agertzen dutela selloak. Bide orre-

tatik gure askatasunerako lortu bearko genituzke gure selluak!.

Euskalerrientzat nai dugun ori bera, eredu eder ta garbi batzuek agertzen digute. Ortzen daukagu, adibidez, Feroe delako lurralde edo ugarte bilduma; guk bezala daukate "buru-jabetza".

Ogeitabi ugarteek sortzen dute lurralde au: 34.000 biztanle ditu (1955) eta 1.400 km². Lurgintza ta artzantzatik bizi dire. Ugarte bilduma ori Dinamarka'ri egokitzen zaio. Len aipatu dugun bezala, Feroe delako lurraldeak ba du buru-jabetza (1948), jaurlaritza, batzarrea ta nortasuna. Izkuntza ta nortasunaren aldetik gurea aundiagoa ta zarragoa da.

Ezagutu nai nituen Feroe delakoaren lurraldeak daukan selloak eta udara onetan, Koopenage'n erosi ditut. Salgai, bakarrik toki batean zeuzkaten. Azkeneko bilduma, joan dan urtekoak esango ditugun gaiak argitaratu dituzte: itxas ondoko bazterra, lau landare ezberdiñak bertan arkitzen direnak, bi emakume ekintza aundikoak, bi txori bertan ezagunak, iru lauki margolari ospetsuarenak a bertako semea, FEROE LURRALDEAREN BI MAPA ZAR, ELIZ BERRI BATEN BI MARGO, atadia ta eliz barrera ikusten ditugu.

Sello bakotxak izen aundi bat darama esaten duna "FEROE" (FOROJAR) baita ere zenbat den selloaren balioa.

Sello oiek lurralde txiki baten edertasuna ta aberastasunak agertzen dituzte. Guk euskaldunok, guretzat, gauza berdiña naiko genuke.

LATXAGA

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear
Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!**

ARGIUNEAK

Calcuta'ko Terese



— Nor zan Calcuta'ko Terese ori?

— Berak onela dio bere buruari kabuz: Odolez Albania'koa naiz; dokumentuz, India'koa; gogoz, erligiosa katolikoa; espirituz, mundo osokoa; biotzez, Jesus'en Biotzarena.

Noiz il da?

— 1997'garren urteko Iraillaren 5'ean, 87 urte zituela, bere bizia beartsuen aide emon da

gero.

— Ori askok egiten dabe.

— Baña, emakume argaltxo au, munduko emakumerik aundiena bezela artzen dabe gaur.

— Nork esan dau orrelakorik?

— Bretania Aundia, Ameriketako Laterri Batuak, frantzia, Alemania eta ONU, UNESKO, UNICEF eta abarreko Lendakariak. India-koak zer esanik ez.

— Baña, Diana'ren eriotzak ots aundiagoa atera dau.

— Ez dira gauza berdiñak; ez daukie alkarren antzik be. Terese'k munduko beartsuen beartsuenak aukera ebazan bere biziaren elburu; 4.000 bere antzeko erligiosak sortarazi dauz... Diana, berriz, aberatsa izan da eta aberatsen artean bizi izan da beti... Beartsuengana inguratu da; baña, ez da eurentzako bizi izan.. Istripuak erail dau (aurretik ilda zeukan biotza) eta orretan da erukarri...

— Bai, bai...

— Terese'k auxen esan eban: Samiñezko itsaso batean, itxaropenezko tantatxo izan nai dot... Eta, bere eriotzak, itaso samiñ ori eta mundu zabala suspertu dauz.

Stalin Salatari



(DEI A:19 IX-1997)

— Stalin salatari? Noren aide?

— Zar Erregearen aide.

— Ori, jaun ori, beste bat izango da...

— Ori, jaun ori, Josif Dugashvili da.

— "Stalin" izen ordez?

— Berbera, ezur eta mami.

— 27 milloek nekazari erail ebazana?

— Eta U.R. S. S. eko jaun da jabe izan zana il arte 1953 urtean.

— Eta, ori, dan ori, nundik atara dabe?

— "Fundación Tolstoi", New-York inguruko, Alley Cottage'n dago eta andik atara dauz xetasun gurti onek ikerketzaille batek.

— Orrelakorik?

Futbolean be, Jainkoa bitarteko

(EL PAIS, 29-VIII-1997)

— Oraingo Debilson da futbolistik galestiena.

— Ez dira, ba, besteak ere merke, arraioa!

— Eta, arazo orretan Jainkoa tartean egotea, zer?

— Antzik eman ere...

— Dabilson jaun oneri, Mezatatik irtetea etorri zitzaion baiezkoa eta orretxegaitik dio "Jainkoak nai dau ni Betis'era etortea".

— Eta, Luis de Lopera Betis taldearen lendakariak zer esaten dau?

— Ba, baietz; berorrek be "Los Salesianos"etan meditatzen egon ondoren, orduan kontratua siñatu eban...

— Zenbatekoa da arazoa?

— 15 milla milloikoa...

— Jainkoa laztana, nun sartu zaitue?



Aita Santua Paris'en

— Ordukoa da or ipiñi dozun argazki?

— Bai, ala da.

— Ao-zabalka, ez dau neke gutxi agertzen.

— Izan, be, ibilli-dabil etenik gabe.

— Urteak ez dute barkatzen.

— Bai, gizona, aguretu dala aztu zako. Baña, zertara joan da Paris'era?

— Aurtengo Dagollinaren 12'tik 24'ra milloek erdi bat gazte, neska eta mutil, bildu dauz bere inguruan.

— Zertara dei egin dautze?

— Maitasunezko eta pakezko gizarte berri bat sortzera.

— Ez da gauza gutxi!



— Aizken eguneko Eukaristian millo bateko jendetza agertu zan Longchamp Hipodromoan...

— Eta, lau egun zertan igaro dauz?

— Federiko Ozanam, fabrika sortzaillea, aldaretara jaso dau, bere langilleen eskubideak

betetzen saiatu zalako, joan dan egunkian.

—Eta, geiago zer?

— Evry uriko katedrala bedeinkatu eta Lisieux'ko Terese txikia Elizaren Teologi-Dotore izendatu dau.

—Emakumea Elizan erakusten? Kontuz!

—Asita daude edonun. Nun bizi aiz?

—Ez dagoela beste bat Teologiko Dotore?

— Bazeudek gutxienez beste bi.

—Nortzuk dozak orrek?

—Avila'ko Terese aundia bat.

—Eta, bestea?

— Asis ko Catalina mojatxoa.

—Bai, San Frantxiskorekin zebilelako.

—Begira errotatik zenbat ur pasa dan arrezkero!

— Amairugarren mendetik ona, asko. Baña, Terese txiki onek zer egin dau, Dotore izateko?

—Santutasunerako bide "txiki" bat erakutsi.

— Gizakiok txikiak gara, ori jakiña dago.

— Txikitasunean gordetzen da aunditasuna ere; baña, ez degu txikitasun ori errez ezagutzen eta orduan arrotu egiten gera gora begira. Alaz be, gu makurrago eta Jainkoa gerturago. Jainkoaren aurrean umetxo batzuen neurria daukagu eta neurri ori artzen du Terese txikiak santutasun bide bezela.



Umetxoa aitaren eskuetan dagoen bezela, geu ere alamoduz gaude Jainkoaren aurrean. Bide ori zabaltzen dausku Teresetxo onek; berak, berberak, erabillitako bidea. Eta, ortik sortu zitzaion aunditasuna Eliza osoaren aurrean.

— Ba, Andre Maria'k be, orren antzekoa diño esaten dauanean, Jainkoa'k begiratu

dabela, bere mirabearen apaltasuna eta orregaitik goralduko ebela beti gizaldietan zear...

— Teresetxo 15 urtekin sartu zan Kalmendarren komentuan eta 24 zituela il zan biriketako gaitzak jota.

— Liburu aundiak idatzi al zitun?

— Bere barruko bizitza erakusten digu "Anima baten



historioa" deritzan liburutxo batean. Irurogei izkuntzetera itzulia dago. Ortxe ikasi dute asko eta askok Jaikoa-renganako bide berezia au.

—Besterik ez al du?

—Eskutitz eta olerki batzuek.

—Ortik atera al dute Dotore izendatzeko arrazoi-bidea? — Alan dirudi.

Manterola'ren Ipuñak

Bi neskato joiazen ferira zama berdiña buruan ebela: Bata marmarioka eta gaizki esaka; bes-tea, berriz, kantari.

— Zer dozu zama orretan ain alai joateko?

—Nik neuk zamari belartxo bat i miñi dautsot.

—Koka, ala?

—Amen ez dago kokarik, neska.

—Zer da, ba?

— Eroanpena. Nekea eta gurutza eramatean ostikoka asi bearrean, lasai eta eroanpenez saiatu ezker, zama arindu egiten da.

—Buf!



Eperra eta arrautzak

— Bi lagunek eper-abi bat topa eben.

—Zenbat arrautzagaz?

—Amar arrautzagaz. An egoan eperra be.

Eztabaidan asi ziran biak. Nagusiak diñotso txikarra-ri:

BARRIAK

– Gorde euk arrautzak eta neuk eperra.

Zergaitik? Biok topa doguz batera.

– Bañan, arrautzak eperra aiña dozak.

– Alan ba'da, tori arrautzak eta emon neuri eperra.

Alan dabiltzala bai eta ez, ies egin deutso nagusiari eperrak eta lurrera jausi txikerrari arrautzak. Orra ezta-baidaren amaia: Iñorentzako ezer be ez.

Zaldien Eguna



(DEIA 11-IX-1997)

– Bosgarren "Zaldi-eguna" ospatuko da Iraillaren 14'ean.

—Nun?

—Araba'ko Mendi-aldean, Markinez deritzan errixka batean.

—Eta, nundik dago erri ori?

– Gazteiz'tik ego-alderuntz.

Kantabria mendarte inguruan?

– Kantabria'ren babesean dago kokatuta Araba'ko Errioxa eta mendi orren ipar-aldetik, berriz, Markinez errioxa.

– Eta, zergaitik aukera dabe erri ori Zaldien Egunerako?

– Koba-zulo asko aurkitzen dira ingumari orretan eta oietako zulo batean, arkaitzean xixilikatua, agertzen da Epona'ren antzeko irudi bat, bere zaldizko eta guzti.

—Nor zan, ba, Epona jaun ori?

—Andrazkoa eta Kelta Erriaren jainko-txiki bat zan: Zaldi-jainkosa edo Zaldien Zaindari. Zaldi gañean azaltzen da beti.

– Eta, nola arraio etorri ziran irudi eta sineskeri oiek Markinez'era?

– Markinez'ek badu Gaztelu bat mendi-gaiñean eta ez zaio kobarik palta. An bizi izan ziran, Araba eta Napa-rroa'ko errietan bezela, Keltak (eta euren aurreko Indo-europeoak) mendeetan zear.

– Eta?

—Badau erriak, gain batean, Beo-larre izeneko Andre Maria ren ermitatxo bat be.

– Beo-larre, beorren larrea izango da?

– Alaxen emoten dau eta erri artan euskeraz egiten zan garaiko berbea da. Ermitatxoak jasotzen ziran kristiñau aurrekoen oiturak eta siniskeriak zeuden tokietan. Santimamiñek be an dauko aurrean San Mames'en ermitatxo et mendi-gallurrean, San Migel ena...

– Zaldi eta beor askoko lekua al da Markinez?

– Bai eta urrunetik datorkio Markinez'eri orrelako zaletasuna. Gaur bertan be zaldi geienetako tokia da eta erria aukera debe aurten Bosgarren Zaldi-eguna ospatzeko Araba'n.

Ez dago txarto.

5.500 Izkuntza Gutxiago

–Aurtengo udaran auxen irakurri dot: 5.500 izkuntza galduko dirala bi ondorengo gizaldietan.

– Nork esan dau ori?

– Juan Uriagereka, Maryland (Ohio) Ikastola Nagusian irakasle dagoenak.

– Nun esan dau orrelako astakeririk?

– Donosti'ko Miramar Jauregian aurten emoniko Udarako Ikastaroan.

– Baña, nola liteke.


– Neolitikotik 6.000 izkuntza egiten ziran munduan gutxienez; orain, ordea, 500 bakarrik geratuko dira. Ez omen zaigu konbeni; baña artara goaz nai-ta-naiez.

– Eta, Euskera?

– Aspaldi esan zuan Unamuno jaun argiak ez zuela eun urte iraungo bizirik. Eun urte pasa dira eta Euskerak bizirik dirau, naiz berak, Euskera utzita, Erderara jo.

– Batuak iltzen ez ba'dau, biziko da.

– Geuk nai ba'dogu, bai.



Apaizaren Asma-eziñak

1—Amar minutu baño geiago ari ba'da izketan... Ez dau sekulan amaitzen.

2—Gitxiago egiten ba'dau... Ez da preparatu.

3—Gizarte-auziak aitaten ba'dauz... Eskertiarra da.

4—Moral-arazoak agertzen ba'dauz... Eskubitarra da.

5—Idaz-gelan egoten ba'da... ez dau jendearekin artu-emonik.

6—Artu—emonak ba'dauz... Ez dau beste zeregiñik.

7—Elizan lanak egiten ba'dauz... Dirua leiotik botatzen dau.

8—Egiten ez ba'dauz... Ez dau elizaren ardurarik.

9—Lagun aberatsak ba'dauz... Orrek bai badaki nogaz ibilli!

10—Beartsuekin ba'dabil... Ori iraultzaille bat da.

11—Gaztea ba'da... Ez dau esperientziarik.

12—Gaztea ez ba'da... Jubilatu egin bear leuke.

13—Gazteekin irteerak egiten ba'dauz... Ez dau parrokiaren ardurarik.

14—Egiten ez ba'dauz... Ez dau gazteen ajolarik.

15—Auzoak ikustera ba'doa... Saltsa guztietan sartun nai dau beure musua.

16—Joaten ez ba'da... Orrek ez daki jendearen berri.

17—Gotzaiak eliza ixten ba'dau, apaizik ez dagolako, guztiak alkartuko dira protesta gogor eta sutsu bat izenpetzeko.

BARTOLO ARROPAINGO

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

GERNIKA, URRILAK 18

Euskal abertzaletasunari ELAk zabaldutako itxaropenezko leioa

Aspaldion, etsipena zabalduta egon da eta dago abertzale askoren artean. Gernikako Itunean itzartutakoa beraren osotasunean lortu ez edo lortutakoa era mugatuan ezarri aal bakarrik, Espainiako latorriak enparaukoa beteteko asmorik izan ez, edota leenengotik Gernikako Itun ori askorentzat naikoa izan ez, izan dira, gitxi edo asko, abertzaleen artean zabaldutako zabalduta dagoan etsipen egoera orren eragileak.



nazinatorako eskubidea. Gernikako Ituna espainiar erdirazaleek il dabe. Aukera ederra izan eitekeana, euskaldunontzako marro arriskutsu biurtu dabe. Gaur eguneko marko politikoa bete bakoa ezeze, guztiz eznaiko eta txiki totu jaku. Estrategia barri onek gaurko egoera usteldutik urtetea aalbidetu bear deusku. Jokabide eta alkarke-ta barriak sortuz. Azken baten, euskal

Beste aldetik, zoritxarrez, euskal alderdi politikoen jokaera naasiak zelan edo alan egoera ori itxartu edo andiagotuten lagundu dau: dala EAJen karlistizazino progresiboa, dala HB eta ENAMen zurrumbilo estrategiko zoroa, dala EAren epekeria agirikoa.

Euskal politikoeak aurreritxi eta akiakulaz betetako politikea egin dabe orain artekoan. Osterantzean, gure gizartea zelan dagoan ikustea baino ez dago: gorrotoa, ezinikusia, samintasuna nongura, gure arteko gudaurre antzeko egoerea,..., batzuk eta besteen erruz. Batzuk eta besteek!

Nork eta sindikatu batek, ELAk, erakutsi bear izan dautse euskal politikariei norabidea. Aberri izateko eta egiteko norabidea. Sasoia izan da! Militantzia politiko bako abertzale askoren eta alderdi orreetako kide batzuen poztasunerako, izan be. Egon be, baina, egon dira politikari abertzale batzuen aldetiko kritika zorrotzak ELAk egindako eta esandako guztiari. Ori ta guzti be, atzerantzako urratsik ez eta aurrera jo dabe proiektu politiko barri ori erriari aurkezterakoan. Eskerrak egin dabena!

Abertzaleen bestelango geiengoa eskatu eban ELAk Gernikan. Eta zertarako? Aberrigintzan aurrerantzako urrats sendoa egiteko, autodeterminazioan aurrera eginenez, burujaubetasunaren bidea egin aal izateko. Autodeterminazioaren aldeko postura sendoa egiteko eskatu eben. Gure eskubideak lortu aal izateko ez dago beste biderik, jadetsi egin gura badoguz, beintzat. Eskubideok gure errian datzaz. Orreetan oinarri-oinarrikoa da autodetermi-

mundu abertzale osoa bide eta jarrera alkargarriagoan, bateratasunean, kokatu bear dala adierazo dau ELAk. Aniztasunetik abiatuz, jokabide bateratua eregi bear dala. Adierazo eta eskatu.

Izan be, ELA erakunde politikorik ez da. Eta leengoa erakunde politikoen zeregina da izan, Baina nazio eregikuntzan ELAk dauan erantzukizunari baietz esateko gertu be gertu dago. Gernikako aldarrikapena eskabide edegi eta zabala izan da, itxia izaterik asago dagoana. Euskal abertzaleen biotzetan itxaropenaren adierazpidea izatea gura izan dabe. Eta arean lortu dabe.

Burujaubetasunaren aldeko ekimenari indar aundiz ekin bear deutsogu. Bakotxak norberaren akatsak zuzenduteko sasoia da. Burujaubetasunaren bideak demokratikoa izan bear dau. Alan ez bada, ez gaitu inora eroango. Baketsua izango da edo osterantzean, egundo be ez dogu ezer lortuko. Abertzaletasunak euskal gizartearen babesa bear dau, gura ta guraz. ELAk adierazo dauan lez, ETak jakin bear dau ez daukala lekuri olango proiektu politiko baten, ez dogula bear, etorkizunerako bidean oztopoa eta eragozpen izango dalako. Beste aldetik, Espainiako gobernuak diralako antiterrorista eta euskal espetxeratu politikoen eta senideen aurkako darabilzan politika ezegoki eta zoroei gatxeritxi deutse ELAk. Egoerearen usteltzean zeri-kusi aundia dabelako eta blokeorako eragile nagusienetari-koak diralako, gatazkeari urtenbideak ixtea baino ez dakarrelako. Euskal espetxeratu politiko guztiak Euskal Errira ekarteko eskatu dau ELAk.



itxaropentsu joan eta itxaropentsu etorri. Orain arteko geldialdiaren aurrean, itxaropenari leioa zabaldu deitso ELAk, eta orain leio ori garatu egin bear da. Gure ondoan eta ELAko jende aldra aren artean EAJ, HB, EA, EB, LAB, EHNE, ELKARRI eta beste talde batzuetako kide edo ordezkari batzuk be an izan ziran. Eta ez gitxi, gero! Eta joan, entzungura joan ziran, joan gintzazan. Gu lez, itxaropentsu. Guztion buru-biotzetan zeozer dagoala esan gura dau orrek. Egarrri agertu gintzazan an, egarrria ilteko asmotan edo. Geroak esango deusku.

Iniaki MARTIARTU
1997ko urrilean

Berba gogorak jaurtigi ebazan ELAk Gernikan, Guggenheim museoaren zabalpen ekitaldian Espainiako errege-erreginak egon ziralara-eta. Espainiako laterriagazko menpekotasuna eta zerbitzatzeko merkearen erakusgarri izan zalako. Sartu be, Espainiako erregetzea atzeko atetik sartu jaku Ego Euskal Errian. Museoa guk geuk, euskal erritarrok, ordaindu dogun ezkerero, EAeko leendakariak egin bear eban zabalpena, eta kito! Bizi dogun egoera politiko naastu onetan, EAeren espainiartasuna argiro izten etorri dira Espainiako errege-erreginak. Gure Erriagazko konprometzua bete ez eta gure eskubideak autortuten ez dauazan ordezkariak instituzionalik gorena artuteko une egokia ez da izan. Orregaitik, deitu eban ELAk Gernikara joateko. Orrexegaitik be joan gintzazan gu ara. Gure ikurra euskal ikurrina dalako eta Espainiako ikurrei men egin gura ez deutsegulako. Sabino eta Luis Aranak lez, atan be.

Azken baten, ELAk aurkeztu dauan eskeintza edo norabide barria Espainiako erdikoikeriari aurre egiteko da, euskal nazino eregikuntzeak eskatuten dauana. Gaur eguneko egoereagaz, erregionalismo espainiarrazagaz, euren buruak eroso ikusten dabezanak artega jarri dauz ELAk adierazotakoa adierazorik. Orregaitik ELAren adierazpen orren aurka eurek jaurtigitako kritikak eta beaztun txarra. Iruntsi beiez, kontxo!

Esan bear da, urrilaren 18an Gernikara joan gintzazala,



EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN EUSKAL-ASTEAK (Bilbao'ko Udal-Batzaren laguntzaz)

Euskerazaleak Alkarteak, urte guztietan lez, aurten be Euskal-Astea ospatuko dau.

NON: Eskolapiotarren ikastetxean (Alameda de Rekalde 19)

NOZ: Abenduaren 1, 2, 3, 4, 5 arratsaldeko 8'retan.

IZLARIAK ETA GAIK:

- 1.- Astelena: Bertsolariak eta euren eskolea. (Legarreta'tar Asier)
- 2.- Martitzena: AURRE APRAIZ OLERKARI (Zubiri'tar Iñaki)
- 3.- Eguastena: Bizkai'ko euskerearen laburpenak (Olazar'tar Martin)
- 4.- Gabonetako oiturak (Zubikarai'tar Augustin)
- 5.- Bizkai'ko euskerearen agozkerak (Olazar'tar Martin).

OARRA: Sarreran izlariaren aurkezpena egingo dau EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren Lendakari jaunak eta itzaldiaren ondoren alkar-izketa amaitzen danean, Solozabal'dar Paulin olerkariak bertso batzuk egingo dauz gaiari begira.

EUSKERAZALEAK

INDARKERIA

Gaurko gaia ez da barritasun bat, baiña zoritxarrez ori da gure eguneroko albistea, ba, aspaldi ontan, gataska aundi baten murgilduta ari gara. Ondiño egun batzuk dirala (1997ko Urriaren 14ean) Guggenheim erakus-toki edo museoaren askunde dala-ta, inguruetan zaintzen egoan eusko artzain bat sustakatua izan zan, etar batek tirokatuta. Oker ez ba'nago, uste dot, zazpigarrena dala. Au da, aurretik beste sei joan dirala.

Ertzainaren izena Txema Agirre zan, 34 urteko gizona.

Ondo merezitako arreta ta ospez lurperatu zan... baiña azkenean or geratzen dira alargun gazte bat bere mutikotxo ume-zurtzakin. Eta dana anaien artean: bai illa, bai iltzaillea, euskotarrak izanik.

Eraiketa guztiak dira izugarriak, baiña batzuetan, alarik be, izan leiteke zeaztasun eta gora-bera batzuk izanik, iltzaillea doillor eta zorigaiztoko aundiagoa egitea.

Oraindik aztu barik daukagu, aurten uztaillaren 12ean gertatu zan eta ezin-itsuagoa dan gaiztakeria: gizon bat atxilotu, baituran jarri, 48 orduko epea emon agintzen eben zeregiña betetzeko eta aurretik jakin-arazi, ostantzean, baitua ilgo dabela. Zatarke-ri izugarriagorik ezin leike asmatu.

Aitatu dogun baitua baiño lenago, gizaki bi egozan baituak. Baikunde biok ETA'k egindakoak, baiña zio ez-bardiñak gaitik. Bata, oi danez, dirua lortzeko asmoz eta bestea, espetxetako langille zan ezkerro, bere zioa eusko atxilotuen auziari lotuta egoana.

Ez da arlo erreza baitu baten zuloa idoro ta kalte barik biztanlea askatzea. Ba egintza miragarri au gertatu zan. Alderdi abertzaleak, bai Gasteiz"ko Legebiltzarrean, bai Madril'go Barne Ministroa dan Mayor Oreja Jaunakin, atxilotuen auziari buruz jarduten eben bitartean, len aitatu doguzan baituak (Cosme Delclaux eta José A. Ortega Lara izendatuak) aske geratu ziran. Barri zoragarria! Lenengo, Laterriko Ertzaiñak edo Guardia Zibillak Ortega Lara askatu eben eta egun ber-beran, ordu batzuk gora-bera, Cosme Delclaux, baitzailleak eurak aske laga eben. Bat-batean, baituak barik geratu gintzazan, ikur urdiñak bularretatik kendu bearrean.

Egiazki diñot, albiste ain nabarmena jakitzean, poz aundia artu nebala ta baita ziñez esan bearrean nago, oldozkor geratu nintzala ta susmoz... autsi-mautsiren bat izango ete zan edo... Burutasun txarra dala-ta burutik kentzeko, alegiñak egin nebazan. Izan be, ustegabeak noizbeinka gertatzen diran ezkerro, au be onartzea legezkoa dogu.

Urrengo egunetan, egunkariak irakurtzean, neuk bezela beste batzuk be gogorapen, ber-bera, euki dabela ikusirik, zertxobait baketu nintzan.

Nolanai, gertaera au ikuspegi guztietatik begirata oso pozgarria dala, argi ta garbi, adi-erazi bear dogu.

Giza-taldeak, pozaren pozez, ikusten ziran kaltetan zear: Anjo deadarra ta alitasuna!

Ortega Lara'ren gertaera politikako arloaz zerikusi aundia eukan-ezkerro, burrunbada guztia bere inguruan bildu zan, eztabida asko sort-araziz.

Baitu onen zori ankerra amaitu ba'zan, baitzailien asmoa, leen bezela zintzilika or geratu da. Gai au erabiltzen zan bakoitzean, Barne Ministroak aitzaki eta txantajea dala ta ezin leikeala iñola ezer egin iñoan. Eragozpen au aldendu zan-ezkerro, aukera egokia agertzen jakola atxilotuen auzia erabagitzeko, entzun bear izan eban, baiña dana alpe-rrik.

Baituen askatzeak eragindako baikortasun aundia ta pozkor aldi-une ontan, bai Mayor Oreja'k, bai Aznar jaunak, atxilotuenganako jokabidea ez dala aldatuko, arro-arro adierazi eben.

Zori ain zail eta zatikor izanik, olako jarrera ta azalpen zakar ta bein-da-betiko bat ez da onena, ain zuzen be, bake bidetik ibiltzeko.

Tamalez, goraldia ta baikortasuna laster amaitu ziran. Bederatzi egun barru, len adierazi dogun ezin-itsusiagoa dan gaiztakeria, ber-bera, eldu jakun: Miguel Angel Blanco ogetabederatzi urteko gaztea, PP'ko kide ta Ermu Udaletzeko ziñegotzia da ETA'k baitu dauna; ta esaniko 48 orduko epea jarri Madril'go Jaurlaritzak eusko atxilotuak Euskadi'ra ekartzeko; jarritako epean baldintza betetzen ez ba'da, baitua il egingo dabela zemaituz.

Danontzat ezaguna da albiste onek eusko gizadi ta laterri guztian, sortutako biotz-ikara ta baitua

askatzearen aide agerkundeak. Baiña bi eguneko epea eralgi ta gero, Miguel Angel Blanco'ren gorputza Donosti'ko inguruetan aurkitu eben, buruan tiro bi artuta... Ordu batzuk geroago il zan. Zoritarrez, etar anker ta erruki-gabekoak, esandakoa egin eben.

Askatasunaren aldeko agerpen aundiak izan baziran, oraingoan, neurri guztiak gainditurik, esan izan zirala adierazi bearrean gagoz. Bai egunkarrietan, bai irrat-ikuskiñean, millaka lagun, besoak jasota, oiuka ETA'ren aurka ikusi al geinkezan.

Askotan entzun dogu ta ondiño aldi asko ez dala Arzalluz jaunak, agirian esan eban, espafiarren ardura edo kezka ETA ez dala, eusko abertzaleta-zuna baiño: Begia bezelako egia. "Vascos sí, ETA no" agerkunde edo manifestazio guztietan entzuten genduan bakoitzean, ETA'ren saski ber-beran mota guztietako abertzaleak, zalantza barik, sartzen gindubezelakoan nago. Beraz, argi dago, ETA'k bere jokabideagaz, iñori baiño kalte geiago eusko abertzaletasunari egiten dautsola.

Batzuri, agian, eusko abertzaleak alkar burrukan dirauen artean, indarkeria ez dautse ardura larregi. Auzi oneri erabaki zuzenezko bat emoteko, mokoka edo geldi-eraztea izan ezik, laterriko Jaurlaritzaren aldetik, ez da ikusten beste eginbiderik.

Indarkeriari buruz, Barne Ministroa dan Mayor Oreja jaunak ezkeintzen dauskuzan alper ta odolezko konpocketak erabilli orde, alkarrizketako bidea

artu bearko geunke, beste errietan asi daben antzera. Oraintsu, joan dan uztaillan, Bilbo'n bertan, gai onetan ain oar-ikasias ta Bake Nobel saridun dan Perez Ezquivel jauna be, itzaldi baten, alkarrizketaren aldeko agertzu jakun.

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER.

=X= =X= =X=

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmaturikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.⁴ eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.
- Saria lau izango dira: 1.⁴ 50.000 pezeta.
2." 40.000 pezeta.
3.' 30.000 pezeta.
4.' 20.000 pezeta.
- Ipuiniak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

OARRA: Ipuiniak ekarteko epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKERAZALEAK

OLENTZARO

Gabonak gaur

Kaleak argi ederrez bete, denda guztiak jan-edariz eta bitxikeriz... Orra gaur eguneko gabonak; jan eta edan... eta urdalla aserik, barre egin eta zorionak alkarri emon...

Bañan, zergaitik guade pozik?

Ez dakigu ziur zergaitik dan: Jendeak, aldizkariak, iragarkiak, irratiak, telebistak, guztiak esaten digute poztutzeko, irriparez egoteko, garraxi egiteko...

Ez digute esaten zergaitik.

Orain arte gutxiarte, Olentzarok eta jaiotzak esaten ziguten zergaitik:

Alaitu ta poztu zaiteze
gaurko gabarekin
gure Jesus onaren
etorrerarekin.

Olentzaro ez zegoen gutxigotarako:

Aditu dueneian
Jesus jaio dala
laisterka etorri da
berri ematera

Erri txiki bat aspalditik zegoen Mesias askatzaille baten zai. Emendik oso urrutira. Azkenik ere, etorri zitzairen. Albiste ori, nekez baña seguru, guregana eldu zan. gure biotzeko mixeri guztien askatzaille jaio da... Bazuan gure erriak zergaitik poztu, alaitu eta apaldu...

Olentzaro eta Jaiotza, biak zebiltzan batera; batzuek bereiztu nai ba'dituzte be. Alkarrekin ibili dira gure artean.

Berri ori onera eldu aurretik, gure erria Europa'koekin batera Eguzkiaren jaiotza ospatzen ebillen. Eguzkia dago une onetan beeran, beerago ezin, eta, indar emateko, suak pistutzen ebezan, susperteko. Enbor aundi bat ekartzen eben basotik sukaldera,

lorrean, beiak aurretik zirela. Sutondoan ipintzen eben eta urte osoan iraun bear eban. Sutegia sukalde erdian egoten zan eta artaraño eruaten eben enbor ori idiek.

Su andiak egin bear ziran Eguzkia berotzeko eta jeikitzen lagutzeko. Europa'ko erriek ekarri eben oitura ori gurera...

Kristautasuna etorri zanean, Eguzkia ez dala jainkoa, erakutxi zigun eta orduan, Jesus beraren jaiotza ospatzea erabaki eben. Jesus da gure benetako eguzkia.

Leenago egiten ebezenak egiten jaraitu eben, baña Jesus'en omenez egin be eta ez eguzkiaren omenez.

Jesus jaio zan garaian ez zuten umeen Zorionik ospatzen, eta ez zuten jakiten ziur zer egutekoak ziran. Askotan, zenbat urte zeuzkaten be ez... Loiola'ko Iñigo'k ez zekien ziur zenbat urte eukazan: bi urte gazteago zala, usten eban eta arazo ori argitze-ko etorri ziran Erroma'tik Loiola'ra historigilleak...

Orain bi milla urte ez zan iñor arduratu Jesus'en jaiotzaren egunekin eta irureun urte erasotuak izan eta, berreun urte berandago oraindik, asi ziran Jesus'en jaiotzaren eguna billatu eziñik eta alan, erabaki bat artu eben, Jesus'en jaiotza eta eguzkiarena, biak, alkarrekin ospatzea.

Ez alda Jesus gure benetako eguzkia?

Zer ajola zaio egun batean ala bestean ospatzea.

Jesus'en jaiotza guretzako benetan pozgarria da eta poz ori egunen batean ospatu bear genduan.

Noiz iltzan Jesus badakigu. Judutarren lenengo illargiaren 14'ean, illargi betez. Ostirala. Ori, bada-kigu. Urtea, gutxi gora-beera, ere bai. Zer egunetan? Ebanjelioetatik ots zegoela atera liteke; beraz, negua edo... Baña, zer illeko egunetan jaio zan ez digute esaten. Orrek ez zeukan inportazirik bape. Eriotzak eta piztuerak zeukaten benetako garrantzia... Eta ori agertzen alegindu ziran.

Olentzaro

Jesus'en jaiotzaren gabak Gabon du izen.

Baita Olentzaro ere: Olentzaro, Olentzero,

Orentzaro, Orentzago, Orontzaro... Orra gertaera batentzako ainbat izen.

Tarteka Gabon eta Olentzaro naastu egiten dira.

Gabon gabeen sutara ekartzen dan enborrari Gobonzuzie esaten jakon Bedia eta Abadiño'n bezela beste toki geiagoetan ere, bai Bizkaia'n, bai Gipuzkoa'n, bai Araba'n eta baita Naparroa'n ere.

Salvatierra'n Parrondo esaten eutsen.

Olentzaro moskorra ala mozkorra?

Gabon-zuziari Olentzaro moskorra esan oi zaio. Moskorra ez da mozkorra.

Moskorra edo mokorra arbol-enborra da. Mozkorra, berriz, ardo-geiegi zalea.

Gabon-zuzi edo Olentzaro moskorrak. Gabon eguneko enbor orrek, badau indarririk asko; eguzkia berotzea baño giagorik. Bere gaitietik pasatzen diran abereak bedekintzen dituz: enbor orren ikatzak etxearen sailleko mugarri azpietan ipintzen diraz... Orrela etxeak babesari emoten deutse lur sailleeri.

Gabon-aparia

Olentzaro-moskorra sutan ipiñi ondoren, apari ederra prestatu:

Gabon gabian oitura degu
guztiok apari ona
bixigu, legatz, makailau -saltza
bakoitzak berak alduna.

Ez da aragirik aitaten, bijili-eguna zalako eta bijili-egunetan ez zan aragirik jaten: Bixigu, legatz, makailau... Orra iru arrain ezberdiñak, irurak beroren mallatan imiñiak: Bixigua lenen, legatza ondoren eta azkenik makailaua...

Eta, postrerako, intxaur-saltza.

Ona orain irurogei urte zelan egiten zan Forua'n intxaur-saltza ori:

Lehenego intxaur-mamiak atara, gero bonbilla borobil bategaz birrindu zapi zuri baten gainean, sutan imiñi ura eta olio apur bategaz (kollara batzuek) eta egurtxo bategaz eragin. Iriña naastu saltza loditzeko, makailau-printza batzuek eta gozokia ugari. Egosten danean, listo mairako.

Zer ala nor da Olentzaro?

Olentzaro-moskorra gabon-zuzia (Gabon-subilla

Abadiño'n) dala badakigu; baña, Olentzaro bera zer da ala nor da?

Nik usten dot, berbari berari begiratu bat emon ezkerro, gauza naiko garbi dagoela: Olen-tz-aro, aurtz-aro eta zaar-tz-ro antzera dala.

Ortik ataraten dogu, aro bat dala, garai bat dala. OLEN aro eta garaia. OLEN eta NOEL izki berdiñagaz egiña dago: O, N, L, E. Alde batera ala bestera imiñi, NOEL edo OLEN agertuko da.

Aoskatzeko, esateko, errezago da Olen, Noel baño. Eta nik D. Manuel Lekuona `zaarra'ri entzunda auxe daukot: Euskaldunak beti oitura izan dabela itzak eta berbak errezteko eta murrizteko. Jose Miguel esateko, Joxemiel esaten dogu; Francisco esateko, Praisku; pretil esateko petrilla; torcularre esateko, tolare...

Noel eta olen berdiñak ba'dira, orduan Olentzaro itza ez da izango ain zaarra...

Beste aide batetik begiratzen ba'diogu, Olen-aroa gizaki biurtu dogu. Antxiñako basajaun eta sorgiñen antzera, tximiñetik beera dator zikin eta itai bat eskuan duela. Illargi berriaren itxura duen itai ori, Mari, sorgin-gurtien amak ere erabiltzen du gure ipui zaarretan.

Tximiñiko zikenkeri orretatik ikaskintzara, zikiñean beintzat, ez dago orrelako aldaketa aundirik.

Sorgin-antzeko gizakia, ikazkin biurtu dogu.

Olentzaro albistari

Jose Miguel Barandiaran'ek zionez (Z.ARGIA 1972.XII.24), zenbait erritan "Kristo jaio berriaren albistearen otsegitera menditik beera datorren gizona dala diote Olentzaro". Ondoren gogoratzen digu nola galdu ziran jentillak Kristautasuna etortzean eta onela jarraitzen du:

"Baña bat gelditu zan eortzi gabe eta bizirik. Menditik beera jetxi eta Kristoren jaiotzaren berri eman zuan ibarreko eta errietako jentillen artean. Auxe zan leenago Olentzaro eta Euskal Erriko aurreneko mixiolaria.

Olentzaro joan zaigu
mendira lanera
intentzibarekin
ikatz egitera

Aditu duenian
Jesus jaio dala
lasterka etorri da
adieraztera.

GABONAK

Orrela jarraitzen du gure maixu zaarrak gai one-ri buruz:


"Erri batzuetan albistari oni, Kristo'ren iragarle-ari, Mairu deitzen diote; beste batzutan, berriz, Jentilla..."

Toki batzuetako Mairuak, beste lekuetan Jentillak dira eta orrela dabilta alkarren artean naastuta gure ipui eta siniskeri zaarretan. Jentillak dira zaarrago; Mairuak gazteago. Ez dira kristau ez bat eta ez bestea, naiz eta Jentil izena kristautasunetik sortu.

Kristau egingabekoak ziran jentillak. Kristautasuna uri aundietatik aundietara zabaldu zan eta gero txikietara eta azkenik mendietako baserrietara. Oiek ziran Jentillak edo "pagani"latiñez, pagoetan bizi ziranak...

Olentzaro ardo-edale mozkorra

Aldaketa moskorretik mozkorrera, geiegi ez zekienek batek egingo zuela. Donosti aldekoa seguru asko. Mokorra ardo-zale giza-ki bat egin dute. Eta, aldaketa orretatik sortu dira ainbat eta ainbat bertso:



Olentzero begi gorri
nun arrapatu dek arrai ori
Zurriolako arkaitzetan
bart arratseko amaiketan.
Orra, orra, gure Olentzero
pipa ortzian duela eserita dago...

Olentzero guria
ezin degu ase
bakarrik jan dizkigu
amar txerri gazte.

Saiaski ta solomo
makiña bat este...

Erri zaarra gera eta oiturak
gordetzen iaioak; baserrie-
tako lana izan da. Gaur
gure baserri asko pikur-
tara joan dira eta
etena aundia gar-
tatzen ari da egu-
netik egunera...

Laister ez
degu gure
aurrekoen
antzik ere
izango...

Baña,
ondo edo
gaizki, Kri-
sutasuna gorde
degun orain ar-
tean urte askotan
eta gure onerako.

Segi dezagun
aurrerantz ere
bide ortatik.

Alaitu ta poztu
gaitzen
gaurko gabaarekin
gure Jesus onaren
etorrerarekin.

ARRINDA'TAR Anes

AUKERA/ALDERDI POLITIKOAK ETA EUSKEREAREN NORMALKUNTZEA BAKION

Euskalerriko eta Bakioko euskerearen normalkuntzan alderdi politikoek egiten eta egingo daberen jokoak garrantzi aundia dauka. Azken baten, erritarren ordezkariak alderdi edo aukera politikoak izaten diralako eta eurotatik aukeratutako autagaiek erriaren gidari politiko-administratibo bihurtzen diralako. Alan da ze, euskerearen aldeko euren jokaerea erabagiorra izango da. Politikariei jagoke euskerea babestea, bultzatzea eta erabiltea. Gaur egun daukagun legediaren arabera, politikariei jagoke erabagitea udala euskeraz ala erderaz biziko dan. Arazoa da, "Jarduera politikoak zelan euskaldundu". Orregaitik, euren gaitasunak euskerearen aldeko benetako eta biotz-biotzezko konpromezu sendoa bear-bearrezkoa dogu.

Aukera politikoaren autetsien eragina gizartean sakon-sakon sartu oi da, arlo guztiak ukutuz. Askotan, txarrerako nai onerako eragina ezeze, jarraibide edo eredu be bihurtuko dira eta erria euronak egiten berez-berez eta igarri barik egiten asiko da.

Erritarrek euskerearen normalkuntzearen garrantziaz sentiberatu bear doguz. Orretarako gizarte giro egokia sortu eta arlo orretan dagozan arazoei urtenbide bateratuak bilatu bear jakez. Betebear au politikariei jagoke, geien baten, euskerearen jakite mailea eta erabilera sustatuz.

Aukera politikoaren arteko adostasuna eta borondate politikoak bada, bear-bearrezkoa da. Euren kudeatutuen dabezan baliabide politiko eta administratiboak euskerearen aide eta beronen mesedetan imini bear dabez. Beraz, alderdi edo aukera politikoek Bakioko Euskera Normalkuntza Egitasmoan burubelarri sartu bear dabe.

Gure erriko ordezkariak politikoaren ardureak euskalduntzearen bidean ekitea bearrezkoa da. Au berau arlo nausi biotan:

1.- Alderdi politikoek barruko jarduerak euskaldunduz eta autagai zerrendak euskaldun alfabetatuz osotuz joan bear dabe.

2.- Erakunde politikoetako izkuntza lez euskerearen erabilpena anditu eta bultzatu egin bear da, leentasunezko arloetan nagusiro euskerea erabiliz.

Gure erriak bear dauan politikari ereduak izkuntzeagaz bat egin daiala eskatuen dau. Ordezkariak publiko duina euki gura badogu, beintzat.

Euskereari jagokozan izena eta egoera sozio-politikoak bermatu bear doguz. Eta orretan alderdi politikoaren pisua erabagiorra izan daiteke.

Aukera politikoaren barruko egoera

Alderdi politikoek barruko egiturak euskaldundu bear dabez. Euron barruko plangintzak eginez eta konpromezuak artuz euron burua inplikatu bear dabe euskalduntzeagaz. Elburua, euren euskera utsez jardutea izango litzake. Alderdiok oinarriko elburutzat jo bear dabe alderdi barruko izkuntza normalkuntzea. Aal dan neurrian alderdi barruko erdal egiturak baztertuz joan eta euskera utsean bear egingo dauan talde garrantzitsua sortu. Alderdi barruko euskera batzordea eratu

bear da. Beraren zereginak alderdi barruko euskera normalkuntzea aurrera ataratea litzake. Or, euskera arduradunaren irudia sortu leiteke be.

Leenengo ta bein, alderdi edo aukera politikoak ze izkuntza erabiliko dauan erabagi eta zeaztu bear dau. Erabagi au egitura eta egoera bakotxari egokitu bear jako, arik eta barruko egiturak euskaldundu artean. Aalik eta epe laburrenean, arduradun politiko guztiak "euskaldun osoak" (euskeraz ulertu, berba egin eta idatzi) izango dira. Arlo politiko batzuetan naikoa izango da arduradunak "euskaldunak" izatea (idazteko zailtasunak). Orretarako, barruko araudi berezia sortu bearko leukee. Bertan, karguek euskerearen jabe izan bear dabe, bai jakite bai erabilera mallan be.

Errealitate ezbardin eta zabalean gagozan ezker, malgutasunaren erispideaz jokatu bearra dago, elate baterako:

Alderdi politikoaren jarduerak euskaldunduteko plangintzak egin: izkuntza erabilpena, agoeroaleak, arduradun nagusiak, bazkideak, jarraitzaileak, batzarrak, argitalpenak, kanpainak,...

Auteskunde sasoiaren autagai erdaldunak aurkeztea oker aundia da. Euskaldunok autagai euskaldunak autatuteko eskubidea daukagulako. Arlo onetan, alderdi barrutik leentasuna emon bearko litzakio euskereari.

Bere burua euskaldunduteko gauza ez dan erakunde politikoak ez da gauza izango administrazioa euskaldunduteko eta oztopo bihurtuko da administrazioan euskerearen normalkuntzea aurrera atarateko.

Aukera politikoak eta udal administrazioa

Administrazioan euskereak aurrera egingo badau, politikarien eskuarte eta onspena bear-bearrezkoak dira. Administrazio barruan euskerearen aldeko plangintza arrakastatsua bada, gino aundi baten, politikarien jarrera eta jardueri esker izango da. Politikariak giltzarri dira gai onetan. Politikarien ardurea eta ekintzek administrazioan eredu izan bear dabe.

Udalean aginduten daberen agintari politikoek euskaldunak izan bear dabe, gura ta guraez. Onek politikarien artean egonezinak sortu leikez, arazo pertsonalak sortuz eta gero, arazook ideologia mailara igaroz.

Politikariek euskeraz jakitea bear-bearrezkoa da. Udala euskaldundutea, euskereraren barru zein kanporako erabilera normalkuntzea da eta. Au da, udala eta erritarren artean batetik, eta bestetik, udal barruko bearreko izkuntza bihurtzea izango litzake euskerearen erabilpenaren normalkuntzarako urtenbidea. Politikariek, bada, onetan dauken erantzukizuna andia da. Izan be, administrazioa ez da euskaldunduko, politikariek euskeraz jakin ez edota jakinda be, egiten ez badabe. Auteskundeetan autatutakoak administratzaileak dira eta erriaren zerbitzuan dagoz, funtzionariak dagozan bestean, beintzat. Zerbitzu publikoak beteten dabelako.

Politikarien euskalduntzeak beste arlo batzuetan egiten dan

EUSKEREAA

aalegin andian aldeko eragina izan dauke. Gai au garrantzizkoa da, izkuntzeari emoten deutson baloreagaitik eta erritarrakazko artuemonetan sortu leiken erreferentzialtasunagaitik.

Udal izkuntza politikea

Tidal mailan, Euskerearen Normalkuntza Egitasmo Orokorra abian jarri bear da. Udalaren borondate politikoa (agintariena) garrantzitsua da elburu orreri eusteko. Eurok, agintari politiki kook, oso-osoaan aren aide egon barik ez da izango aalezkoa elburua ekintza bihurtutea.

Politikariek udalerriko euskerearen normalkuntza prozesua bideratu bear dabe. Orretarako, egitasmo eta plangintza berezia sortu bear dabez. Beroneen ildo nagusiak zeaztu bear dira, arean da, izkuntza politika egokia sortu. Erabagiorkak diran neurrirei eta gizarteko arloei leentasuna emon bear jake. Euskerearen Normalkuntzarako Plangintza Orokorren bearritzana leentasunen artean imini bear dabe udalean dagozan erriak aukeraturtako agintari politikoeak.

Izkuntza politikea egiten asteko baina, norberaren burutik asi beariko litzake. Beraz, Bakioko lango erri euskaldun bateri jagokon ordezkari politikoak %100ean izan bear dau euskaldun. Bakio "ERRI EUSKALDUNA" izendatutea neurri politikoa da osoosoa, izkuntza politikearen oinarria, izan be. Agintariiek eurek artu bear daben neurria da, neurri orrek beragaz dakarzan esangura, konpromezu eta betebearrak ontzat artuta, jakina.

Euskerearen aldeko izkuntza politika sendoaren ezarpen eraginkorra oinarritzkoa da. Orretarako, alderdi politikoen baterata-sun eta adostasunik zabalena bilatu bear da.

Euskerearen erabilera plangintza udal administrazioan

Udalerrri mailako izkuntza erabilera plangintzea dala eta, alderdi politikoeak eragin zuzena dauke eta eukiko dabe errian eta dalako plangintza orretan.

Udal administrazioa euskaldunduteko berari jagokon izkuntza erabilpen plangintza sortutea naitaezkoa da. Administrazioan euskerea sendotutea dau elburu. Bizitza administrati-boan euskerearen erabilpena sendotuteko gitxieneko neurriak artu bear dira. Politikea gizarteko leen mailako jarduereta dan neurrian, izkuntza plangintzea bearrezkoa da, egiteko dagoan euskerearen normalkuntzeari bear dan lez erantzuteko.

Administrazioari begirako izkuntza erabilpen plangintzan politikoen jokoa garrantzi andikoa da. Euren jarrera eta intere-sak plangintzearen aide imintea normalkuntzearen aldeko urrats andia litzake. Administrazioan bearginakaz batera politikariak erabilpen plangintza arautuan sartu bear dira. Politikariek une guztietan euskeraz egin beariko deutsee funtzionari eta erritarrei, plangintzea arrakastatsua izan daiten gura bada. Politikariak plangintza orretan sartu ezean, oztopo bihurtuko dira eta urrengo urteetako erabilereeta bera eta erabilpen plangintzearen porrotaren eragile nagusiak izan leitekez.

Administrazioan politikarien izkuntza jarduereta arautu bear da, administrazio arloetako izkuntza erabilpena arautuz. Normalkuntza bidean, bai erakunde publikoen aldetik bai giza-alkartearen aldetik aurrera jo bear dogu, administrazioak zerbitzuak euskeraz emoteko elburua artuko badau. Or, aukera bi agertuko jakuz:

– Politikari erdaldunen menpean jarraitu eta naitaezko euskerearen batzordeak administrazioan sortu (euskaldunen esku-bideak jagoteko).

—Euskeraz egiten daben politikari euskaldunak jarri.

Administrazioan politikarien izkuntza jardukereeta arlo guz-

tietan arautu bear da. Erabilpenari buruzko erispideok jarraibide eran:

– Arloko elburuak jarritz jakite mailearen arabereeta leentasurezko esparruak izendatuz: ezkuntzeeta-gaztedieeta-kultureeeta-per-tsonaleeta-osaunb ideeta-urigitzeeta-...

– Alderdiiek euren autagaiak plangintzara egokitu eta izkuntzeta prestakuntzeta biderartu.

Kargu politiko eta konfiantzazkoetan izkuntza eskakizunak jarri.

—Au dana egieeta bihurtuteko epeak jan-i, politiko barriak plangintzara egokituko dirala.

—Goi erakundeak euskereeta nagusiro erabili, batez be, leentasurezko arloetan.

—Euskereeta zerbitzueeta (teknikarieeta) sortu, plangintzeta ori auneeta-erata aal izateko.

Agintari politikoen euskereraren jakite maileeta urrieeta dala eta, administrazioak euskeraz jarduteko aukereeta mugatueeta dauka. Orregaitik, udalean ordezkarietazeta izango daben alderdi politikoeieeta autagai euskaldunak aurkeztu daiezala eskatu bear jake. Bearlekueta lortuteko funtzionariei bakotxarieeta jagokon izkuntzeta eskakizuneta gaindituteko eskatuten jake. Politikarieieeta baina, ez jake olangorik eskatuten, administrazioan agintarieeta izan arren.

Agintarieek euskeraz jakin ezean, arazoeeta euskerearen erabile-ran sortuko da. Beraz, administrazio bearginak legez, eurak be euskalduntzeta plangintzan sartuteeta garrantzieeta-garrantzizkoeeta da. Administrazio arduradun goren lez, euskerazko funtzionamen-durako bear-bearrezkoak diralako.

Udaleko alderdien arteko euskerearen aldeko itzarmena

Udalak euskerearen aldeko konpromezuan sakondu guran, udaleko alderdien artean euskerearen erabilereeta geituteko eta bultzatuteko itzarmeneta izenpetu beariko litzake. Besteak beste, urrengo lerro edo ildoak adierazoz:

1.– Komunikabideen aurrean agerraldiak euskeraz egin.

2.– Komunikabideieeta euskeraz egindako informazioeeta euskeraz jaso eta zabaldueteo eskaereeta egin.

3.– Erritarrei euskerazko informazioeeta irakurrieeta eta entzuten aalegindu daitezala eskatu.

Eduki eta izakere politikoen ganetik euskerearen aide egon bear dabe politikariek. Normalkuntzarako aaleginik andienak egiteeta eta erabagi bultzatzaileak babesteeta jagokez euskal alderdi politikoeieeta, izkuntzearen normalkuntzan ekintzaile nagusiak dira eta. Neurrieeta egokieeta artu edo erabagi ezezeeta, areek beteteo borondateeta eta bearrezko balia-bideak eskuereeta imini be bear dabez.

Borondate politikoa

Alderdi politikoeak argieeta garbieeta erakutsieeta beariko leukeeeta izkuntzeta politikeeta egieeta bihurtuteko aldeko borondateeta. Euskerearen normalkuntzeta bultzatuteko eta bermatuteko borondate politikoeeta eta sentsibilitateeta erakutsieeta, atan be.

Politikarien euskerearen aldeko borondate politikoeeta oso garrantzizkoeeta da. Administrazioari begieeta ezezeeta, errieeta mailarieeta begieeta be. Orregaitik, alderdi politikoen autagai guztiak euskaldunak izateeta bear-bearrezkoeeta da. Borondate politikoeeta argieeta eta garbieeta barik, gatx-gatxeta izango da funtzionariek aurrereeta egiteeta, eta era berean, administrazioan euskerak aurrereeta egiteeta.

Administrazioeeta euskaldunduteeta baina, ez da tresneta edo iskieeta politiekotzat erabili bear.

Iniaki MARTIARTU

1997ko dagonilean

SETIEN GOTZAI JAUN ADISKIDEARI

Azaroak 2. Entzun dodaz, Joxemari, irratiz aurrena eta telebistaz gero gure "ikara-sorketa" edo "terrorismo" zikiñari-buruz egin-berri dozuzan agerpen ego-kiak. Eskerrik beroenak zuri, argi eta garbi itzegin dozu-lako.

Beste gauza batzuei-buruz, "elbatua-ri-buruz adibidez edo zure pastoraletako euskeraren ulerkaitzatasuna-ri-buruz bat ez ba'gaude ere, bat gatzat beintzat oso-osoan, zuzentasunari ta sinismenari dagozkien arazo nagusi guz-tietan.

Apaiz bezala ta Artzai bezala itzegin dozu. Beste noizbait idatzia naiz, zu, beste gauza guztien gaindik; lendabizi Apaiz ("Sacerdos!") eta Artzaia ("Pastor") zarala, eta Españi'ko gotzaidi osoan zu bakarra zarala zure Elizako "beldursortzallei", "terroristei", Aitak seme igesegiñari, Apaizak bere ardurapean daukan ani-ma okertuari, eta Artzai Onak ardi galduari bezala begi-ratzen diena, eta, gixagaixo oien gaiztakeria, bere aragi beraren gaitza bezala sentitzen dauana.

Bearbada geiegitxo luzatu neban mingaiña, ori esan nebanean; baiñan, oraindik beste gotzai oiek ez dauste arrezkero, nik iritziz aldatu aal izateko erosotasun aun-diegirik emon. Zu mintzatuz gero zerbait esaten dabe-nean ere, beste nora-jorik ez-ta, zure atzetik arrastaka bezala agertzen bait dira.

Bat nator zurekin, jakiña, gizakume baten bizitzak politikari guztiak baiño geiago balio daula esaten dozu-nean. Ez dut uste ETA'k darabilkian jokabidearen aurka nik baiño gogorrago inork idatzi daunik. Ezta zuk ere, Joxemari. Naikoa dozu ortaz jabetzeko, "Naparroa'ko Egunkari" edo "Diario de Navarra"n euskeraz agertuta-ko nere idazlanei begiratu bat emotea. Oartzen naz, ordea, zuk gotzai bezala eta nik idazle uts bezala ezin dogula era berdiñean idatzi.

Baitare, zurekin bat egiñik diñot ETA'ren ilketak egiazko erailketa edo "asesinatoak" dirala. Ori, zuk, maiz esan dozu; eta nik bezaiñ argi, edo argiago, bear-bada.

Bat nator zurekin "ikara-edatzaille" edo "terroristak" abereak ez baiña gizakumeak dirala oi u sendoz aitortze-ko; eta gizakume orori zor yakozan eskubide guztiak gorde bear yakezala, nunnai eta edozeiñen aurrean alda-rikitzeko. Ta..., ez dakit zuk, bañan nik bai, nik badot bá, komisarietan eta espetxeetako zokoetan eskubide oiek gordetzen ez yakezalako uste tinkoa. Uste tinkoa eta ben-benetako kezka! Bai bait dakit munduko ert-zaindi guztiek "oiñazeketarako", "toturaketar" joera gaitza dabela.

Barka eidazu, Joxemari: Orain datorkit bá nere oroi-

men motel ontara, zeuk ere ertzaindegi eta espetxeetako oiñazeketari-buruzko kezka mingarri ori bein baiño geiagotan agertu dozula. Jarrai aurrera bide ortatik, go-tzai jauna, ori bait da gotzai zaratenon bearkizunik aun-dienetako bat: Naiz Donibane Batailariak bezala, burua erretillu batean utziz bizia bukatu, Donibane Batailari Profeta zintzo arek bezala, bildurrik gabe Agintarien gaiztakeriak, —eta Agintarien izenean eta kerizpean beren esaneko ordezkariak— egiten dabezan gaiztake-riak oiuka ez ez bearbada marruka ere ta karraxika salatzea. "In omnem terram exivit sonus eorum", "mun-du osora iritxi zan, sortu zuten zarata", esaten dau Eli-zak, Apostoluen jardunkeraz mintzatzerakoan.

Apostolu aien Ondorengo Apostoluen artean ¿amai-tu ote da, Joxemari, ziñopatasunarako, ots, martiritzara-ko "bokazio- edo, "barrundiko deia"?, barrundiko dei jainkotiarra?

Bat nator zurekin alkarrizketan asteko, aurretiko kondizio edo baldintzak jarri bearrik ez dala esaten dozunean, baldintzak jartzen dauzanak pakea ez baiño bere buruaren garaitza gura bait dau.

Izan ere alkarrizketan asi aurretik, ETA'ri jendea ilt-zez amaitzeko eskatzen dautse espaiñarrek eta euskotar espaiñzaleek; eta Españi'ko Jaurlaritzari izkillu guztiak emoteko.

Ori, ordea, ETA'ri bere etsaien oiñetara belauniko miserere-kantatuz etortzeko agintzea litzake. Zentzurik ez daun eskaria. ETA'k ez dau bd, inoiz ere, onelakorik egingo.

Gaiñera, ETA'k erainkeiak amaituta izkilluak ere Gazteiz'ko edo Iruña'ko edo Madrid'ko Jaurlaritzaren eskuetan utziko ba'leuz, besterik gabe egiñik egongo litzake pakea. ¿Zertarako, ortaz, geroagoko alkarrizke-tak? ¿Etatarren etorkizuna erabakitzeke?

Baiñan bein izkillu danak utziz gero, zeren babes-pean aurkeztu bearko litzakez etatarrek alkarrizketa oie-tara? Madrid'ko Jaurlaritzak emandako itzaren babes-pean? Bañan... etatarren aldetik, Madrid'ko Jaurlaritzaren itzak uste onik lortu ote daike?

Ez dot esan nai eta ez diñot ETAk jende-erailketan jarrai daikeanik esaten. Zuk, Joxemari, ainbat aldiz esan dozun bezala, ez ETA'k eta ez beste inork, ez bait dau inor iltzeko eskubiderik. Au da, soilki, esan nai izan dodana: Alkarrizketalarien aide batekoek, ots, etatarrek, —ez alkarrizketa aurretik ez alkarrizketaz gero-jende-erailketarako eskubiderik ez daben bezala, beste aldekoek ere, ots, espaiñar eta espaiñzaleek, —ez alka-rrizketaren aunetik, ez gero-, ez dabela baldintza txo-rorik jartzeko eskubiderik.

ARAZOAK

Bat nator zure izkera txukun, egoki, neurritsuarekin ere: Ez bait dozu sekulan, berealaxe zuzenki tratugin-tzan asi bear danik esan; soilki, alkarrizketan asi bear dala esaten bait dozu, alkarrizketa-bitarte pakerako bidean nolabaiteko alkar-artze batera iritxi daitekean ikusteko.

Bestalde, soziologo edo gizartiztilari bezala ongi bait dakizu tratu edo itun sakonagoetarako, Euskalerrriaren izakera ukitu daikkeen itunetarako, ETA iñor ez dala. Orrelako itunak egiteko, erriak auteskundeetan aukeratu dauzan Alderdiak bakarrik bait dira nor!

Zurekin bat nago, ¿nola ez?, etatarak gaizkilleak diralako, ertzaiñek —bitez Gazteiz'ko bitez Iruña'ko bitez Madrid'ko Jaurilaritzaren ertzaiñek— beren langintzan jarraitu bearke dabela esaten dozunean.

Baita, ertzain guzti oien lan guztiak, zure ustez, pakea lortzeko naioak izango ez dirala diñozunean ere. Ori, ordea, Joxemari, zure uste ori, uste utsa baiño askoz geiago ere bada. 1960'ren ingurutik, ots, ETA sortu zen une aietatiko ertzaiñen lan eta neke guztiak alper-alperrikakoak izen direla ikusteak, egirik egiena biurtzen bait dau zure, nere, eta, gaur, beste asko ta askorena dan uste ori!

Alare, Joxemari, otsoak bezala jausiko yatzuz lepa-gaiñera eskubi ta ezkerreko izparringi, irrati ta telebista españiar eta españizale guztiak. Ez da arritzekoa. Politikari oiek nai dabena ez bait da PAKEA. Oiek nai dabena, biotz-barrungo gorrotoari ateak irikiz etsaia ankapetuta munduaren aurrean garaille agertzea besterik ez bait da.

Alatagutziz, ez gaitez an oiekin gogorregiak izan. Euskalerrriari dautsoen gaizkinaiak itxuturik bait dabil-tza. Toledo'n sortutako talde bat izango ba'litz ETA. Bere iru izki oiek, —E. T. A.— "Euzkadi Ta Askatasuna" ez baña "España Toda Unida" esan naiko ba'lebe..., eta zuk Euskalerrriko ETA'ri-buruz esan dozuna..., Toledo'n sortutako ETA'ri buruz esan ba'zendu..., ¿sortuko eutsoenla uste al dozu jaun españiar eta españizale oiek, orain ziurki sortuko eutsoen milla deabruen iskanbilla?

Ta...ta... ta... ¿nolakoa izango ote litzake Toledo'ko ETA ari-buruz Españi'ko gotzaidiaren jardunkera?

Azaroak 5. Atzo, eta eranegun, irakurri ta entzun aal

izan dogu, zuk eta zure adiskideok itxaroten genduzan lez, betiko oro nastaille españiar eta españizaleek sortu dabena itz zakar gaiztozko burrunbota zikiña.

Batek, egunero mezara joaten dan batek, "Aita Apeles deritzan praille lotsagabe ori baiño makurragoa zarala Elizarentzat", diño; beste batek, Loyola del Palacio Ministroak ainzuzen, "burutik eginda zagozala-ta, siko-logilari batengana joan bearke zeunkela"; beste batek, Euskalerrriaren etsairik aundiena dan "El Correo Español" en idazten daun batek, "ETA'ren aitasantua zarala"; aipamen gaiztoko Umbral idazle zakarrak, "vomito" edo okazta zikin bat izan dala zuk esan dozuna. Rosa Diez Eusko-Jaurilaritzako Aolkulari ber-berak ere iriki nai izan dau bere ago zabala, zure azalpenak irakurri duazanean "goragalea sumatu daula" esateko; dirudianez, Arroxatxo xoxialixta ttuntun ori bera ere, axarrettu bait yaku!

Usai gozoko lilitxo mardul oiek, Joxemari, zure gaiñera jaurti yatzun sats-pillo narorena ttanto batzuk besterik ez dira. Ez bait da, izparriengietara edo irrati ta telebistetara sarrerik daun españiar edo españizale bat bakarrik bere kaka iroldegi ortara jaurtitzeko geratu. Ta, aldi luze batez ez dira ori egitez aspertuko. Orrelakoa dozu ba españiarren abertzalekeria.

Alare, españikeri alu orren zurrunbillo zoroan, izan da bat, zorionez Españi'ko gotzaidiko bat gaiñera, zure aide bikainki jaiki dana: Elias Yañez Zaragoza'ko Goigotzaia ta Españi'ko Gotzai-Batzaren Lendakaria, ain zuzen.

Españi'ko beste gotzaiak isilik dagoz oraindik. Isilik, Euskalerrrikoak ere. Gaurtik aurrera, bai, Don Elias mintzatu dan ezkerre isilik egoterik ez dabe-ta, orain etorriko yakuz Don Elias en atzetik beraiek ere azalpenak egiñez. Beranduegi artuko dabe txanda. Beraiek izan bear bait eben txanda-buru! Orain, itzegiteko garaia joan yake-ta, obeto izango leukee isilik jarraitzea.

Don Elias entzat bitez gure eskerrik sendoenak. Atsegiñ aundiz irakurri dodaz egin dauzan azalpen kementsu ortako itz eder biribillak. Poztu nabe, Joxemari, zuretzat ere pozgarri izango diralakoan'.

Latiegi'tar Bixente

¹ Itz bi esan nai dodaz Yañez Goigotzaia Jaunari-buruz. Orain Gazteiz'en eta Bilbao'n dauzkagun gotzaion aukeraketarakoan, eskutitz batzuk idatzi neutsez an Españi'ko gotzai batzuei, jaun aien izkera zuzena iduri ez yatalako. Eta aiek telebista ta izparringien bidez mintzatu bait ziran, izparringietara ere bidali nebazan eskutitz oiek. Erantzun eusten gotzaiak zintzo. Eta nere eskutitz aiek eta gotzaien erantzun aiek aldizkari ontan bertan argitaratu nebazan danak. Batena ez gaiñeko danak. Elias Yañez Zalduba'ko Goigotzaiak ez bait eustan erantzun. Udaz urtero illabete bat igaro oi dot Zalduba'ren alboko Utebo'n. Agertu neutsen apaiz adiskide batzuei Yañez'en erantzunik ezak sortu eustan naigabea. Berdiña izan zan apaiz guzti aien erantzuna, eta ia-ia itz berdifiak emanez esana: "Egon zaittekez ziur zure eskutitz ori ez yakola eskuetara iritxi. Don Elias ez bait dau gutun bat erantzunik gabe sekulan utzi. Don Elias ezagutzen daun edozeiñek jokatu leuke lepoa, zuk aurkezten zeuntsan bezalako arazo garrantzitsu bati erantzuteke geratuko ez zala egi utseziña lez aldarrikatzeke. Ainzuzen, izparringilari batek, eta orren atzetik beste guztiak argitaratu ebena, berak ari esan eutsanaren osoki berdiña ez zalako, asarre geratu omen zan egun aietan". Bedi guzia Don Elias'en izen ona garbitu ta sendotzearen esana. Zor bait neutsan aitopen au.

EUSKALDUN BARRIENTZAT

ITZ DORREA

- 1.—Txarra'ren zentzun-aurkakoa.
- 2.—Emakume'en jantzia.
- 3.—Leku batean izan.
- 4.—Ongi, ederki (bizkaieraz)
- 5.—Urrean, aldean, alboan.
- 6.—Joaten dago.
- 7.—Sagarrez egiten dan edaria.
- 8.—Maatsez egiten dan edaria.

AZALPENA										***	
V	O	U		V						8	ORDU ONENAK
V	O	U		V	9	V	S	L			Lagun bi lantegiko goraberak aipatzen dabiltz.
V	O	U								9	– guretzat bazkalondoko orduak dira onenak... iñork ez
V	O	U	N							S	dau lanik egiten.
	O	U	N	O						17	– Zer? biago egiten dozue ala?
			N	O	O						– Guk ez nagusiak.
	V	N	O							Z	***
		N	O								

ORDU ONENAK

IA TON
J NOTA
- A

Ur korronteak
agep ntnnlago


500B

500A
B

Ez da zilegi
Inxa.ug




KARMELE



EUSKMIZZZLETK

Colón de Larreategi, 14 - 2.² dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATOK EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konprometzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK

Bilbao Bizkaia Kutxa